

2022ko URRIAREN 20ko ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ DEITUTAKO 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION BARNE PROMOZIO MODALITATEKO OHIKO PROZEDURAREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIAREN AKORDIOA. HAUTATUTAKO PERTSONEN ETA ESLEITU ZAIZKIEN LANPOSTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA EGITEN DENA.

2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen ebazpenaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratu ziren.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko EBAZPENAREN bidez, deialdi espezifikoetan barne-promozioaren bidez sartzeko hautaketa-prozedura arautu duten oinarri espezifikoak argitaratzeko agindu zen.

Barne-promozioeko modalitateko karrerako funtzionario izateko ohiko prozesuko epaimahaiak hartutako erabaki banaren bidez, berariazko deialdietako behin betiko azken kalifikazioa onartu zen, eta zazpi egun balioduneko epea ezarri zen sailkapen-talde bakoitzerako hurrenez hurren eskainitako lanpostuak hautatzeko.

Deialdi espezifiko guztietan epe hori amaituta, eta 9.1 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, *hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen zerrenda egin behar da, kontuan hartuta hautagai bakoitzaren puntuazio hurrenkeraren eta adierazitako lehentasunak, betiere, lanpostuan aritzeko baldintzak betetzen badituzte*, eta hamar egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, baina bakarrik hautagaiek eskatutako lanpostuei dagozkien betebeharrak espezifikoetarako.

Horregatik guztiagatik, epaimahai honek

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.– Barne-promozioeko modalitatean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko deialdi espezifiko bakoitzean, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrenda argitaratzea eta akordio hau argitaratzen egunetik hasita hamar baliodun eguneko komun epea ezartzea erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, baina bakarrik hautagaiek eskatutako lanpostuei dagozkien betebeharrak espezifikoetarako.

BIGARRENA.– Horretarako gaitutako UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (<https://www.ehu.eus/es/web/azp/barne-promozioa-22>); gaingaituen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.